

Egituraketa autonomikoa nagusitu da eskola liburuetan

Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdiak eta Karmele Perezek egindako lanek urteotako eskola materiala aztertu dute

IÑIGO BILBAO - BILBO

Euskal Herriak gero eta indar gutxiago hartzen du euskaraz ekoizten diren eskola liburuetan. Joan den mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, batez ere, egituraketa autonomikoek hartu dute indarra eskoletan erabiltzen diren liburuetan. Argi ikusten da hori Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdiak eta Karmele Perezek kaleratu berri dituzten

Euskal Curriculumala ala euskal dimentsioa curriculumean? eta Curriculumala eta ingurunea Euskal Herrian izeneko liburuetan.

Liburuak Utriusque Vasconiae argitaletxeak kaleratu ditu, aipatu hiru egileek euren doktore tesietarako elkarlanean egindako azterketak laburtuz eta irakurleentzat ulergarriago eginez. Paulo Iztuetak egin die hitzaurra liburu biei.

«Eskola liburuetan agertzen den XX. mendeko Euskal Herriak gero eta irudi zatikatu eta nahasiagoa eskatzen dio euskal ikasleari, auzo-estatuekin gero eta korapilatua. Historia? Irudi du historiari ere ez dugula», zioen Ezkurdiak Bilbon atzo egindako agerraldian.

Azterketa 5. mailako eskola liburuetan oinarritu dute, euskal gazteek 11 urte dituztela erabil-



IKERTZAILEAK atzoko aurkezpenean; Begoña Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdiak. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

tzen dituzten horietan, maila horretan jasotzen baitituzte lehen- goz historiari buruzko eta, beraz, Euskal Herria izan denari buruzko argitasunak. Bizkaian edo Gipuzkoan bertan ekoiztako liburuetan Euskal Herriaren errealitate soziokulturala nabarmenagoa bada ere, argi utzi zu-

ten agerraldi horretan euskaraz kaleratzen diren eskola liburu gehienak (%68) Madrilen, Bartzelonan eta Zaragozan eginak eta itzuliak direla. «Nafarroan bada libururik EAE aipatu ere egiten ez duena, ezta mugakide dela edo hizkuntza bat komunetan dutela esateko ere».

GURUTZE EZKURDIA Ⓛ PEDAGOGIAN DOKTOREA

«Askoz ere gehiago egin genezake gaur egungo legearen barruan»

I. B. - BILBO

Curriculumeko edukiak eskola liburuetan Euskal Herriaz zer dioten ikusteko, Gurutze Ezkurdiak historia hartu zuen tesiaren oinarri. Bere izena ageri da, beraz, orain kaleratu diren liburuetan.

Dioenez, eskola liburuetan Espainia agertzen da oinarritzko eredu bezala. Guztietan gertatzen da hori?

Frantzia egiten diren eskola liburuetan Frantzia da, ez dago Euskal Herriko. Espainiakoetan berriz, autonomikoa da errealitatea. Eta gero eta liburu gehiago kanpoan ekoizten denez, eta itzuliak direnez, portzentajetan, hori nabarmena da. Erreferente autonomikoa da nagusi. Bertoko eskola liburuetan erreferentzia soziokulturala mantendu egiten da. Baina hor ere informazio asko kokatu barik ematen da, ia ia ematen den informazioaren erdia kokatu barik dago.

Izan daiteke hori modu bat gero irakasleak berak informazioa kokatzeko?

Ez, kokatu bakoa denean izaten da informazio aseptikoa eman

nahi delako. Ez du balio kobazulo baten argazkia agertzea eta ez esatea nongoa den.

Esan gura du horrek ikasgeletan ez dela Euskal Herriaz hitz egiten?

Ez, noski. Irakasleak askatasun osoa dauka horretarako, eta badakigu hainbat ikastetxetan euskal curriculumala lantzeko ahalegin berezia egiten dela. Hori hor dago, eta ahalegina gure ikerketan oso ondo kokatuta dago. Guk erresistentzia deitu dugu. Badira identitate nagusi batzuk, ofizialak, eta badira erresistentziako identitateak. Horiek bereiztu egiten ditugu.

Agerraldian aipatu duzu umearentzako liburuetan ageri dena dela egia absolutua. Zer gertatzen da egia hori ez bada liburuetan agertzen?

Egia absolutua ez, nik esan nahi dudana da liburuetan agertzen den informazioa dela umeak ontzat edo autoritatetzat hartzen duena. Liburuan ez bada Euskal Herria aipatzen, edo Euskal Herria zati batean bakarrik aipatua badator, argi dago ume horrek jasoko duen lehen ideia ez dela izango oso zuzena. Gure ustez informazioa zuzen eman behar

da. Gu herri soziokulturala gara. Momentuz ez gara politikoki ezer, baina bagara, soziokulturalki existitzen gara.

Espainian legez curriculumaren edukien %45 autonomia bakoitzari dagokio zehaztea. Gasteiz eta Iruñeari, hortaz. Zergatik ez dira aukera horretaz baliatzen eduki hori emateko?

Bofill txostenaren arabera, %22 da portzentajerik erabiliena. Zergatik ez gara %45era helitzen? Hori Hezkuntza Sailak esan beharko luke. Argi dago politika banatu horiek ez datozela euskal izaera soziokultural horren mesedetan. Guk ezin dugu besterik esan, dagoena baino.

Liburuek arrazoia ematen diete Euskal Herria ameskeria dela diotenei?

Nik ez nuke hain modu biribilean esango. Hemen bide bat jorratu dugu herri modura, eta hor badira ahalegin handia egin duten argitaletxeak. Horiek aintzatzat hartu behar dira, eta erabili ere bai. Baina guk konstatazio bat egin dugu, neurtu. Eta neurketak ematen duen segurtasun horretatik esan genezake askoz gehiago egin genezakeela gaurko legearen barruan, eta

etorkizunean legeak aldatuko balira, askoz hobea.

Curriculumala eta euskal dimentsioa, ez dira gauza bera?

Curriculumaren oinarrian egon behar du errealitate soziokulturalak eta baita errealitate ofizialak ere. Ez dugu uste oso planteamendu zuzena denik errealitate soziokulturala gainerako informazio bezala aurkeztu nahi izatea.

DIMENTSIOA

«Gure errealitate soziokulturala gainerako informazio gisa aurkeztu nahi izatea ez da zuzena»

ESKOLA LIBURUA

«Ez bada aipatzen Euskal Herria, umeak jasoko duen lehen ideia ez da zuzena izango»

Euskal Herria ardatz hartzera behartuta ez egon arren, ahalegin asko egiten dira

I. B. - BILBO

Gaur egungo errealitate politiko-administratiboak kontuan hartuta, Euskal Herriak errealitate kulturala osatzen duela jasotzen ez duten eskola liburuak ez ditu gogoko Xabier Garagorri: «Iruzur egiten diote herri honi». EHUko Pedagogia irakasle horrek gertutik ezagutzen ditu ikastolak, bera izan baitute curriculum proiektuaren egilea.

Ezkurdiak, Bilbao eta Perezek egindako ekarpenak aintzat hartu ditu, eta kaleratu berri diren liburuetan jasotako datuak kezkarriak direla onartu arren, argi utzi nahi izan dio BERRIARI ikastolatan ez direla Euskal Herrikan kanpo ekoiztutako eskola liburuak erabiltzen.

«Ez dago inolako derrigortasunik materialak hautatzeko orduan, baina ikastolatan Elkar edo Erein argitaletxeen liburuak erabiltzen dira gehienbat. Salbuespena izango dira Euskal Herriaren ikuspegi murriz hori erabiltzen dutenak, baina ez zait burutik pasatzen ikastolatan horrelako libururik erabili daitekeenik», esan du Garagorri.

Dioenez, irakasle askoren eta eskola askotako joera bada irakasle bakoitzak bere ikasketa materialak hautatzea, ikastetxearen hezkuntza proiektua edo curriculumala gehiegi kontutan hartu gabe. Ikastolek, hala ere, badute beren hezkuntza proiektua, «eta horren arabera egokitzen den ikasketa materiala aukeratzeko dute».

Irakasleen atxikimendua

Juan Karlos Aretxabaleta Nafarroako Sortzen Ikasbatuaz elkarteko presidentek argi dauka, bere aldetik, eskola liburuak irakatsi beharrekoa baldintzatu badezakete ere, irakasleek, beren kabuz, badutela zeresanik: «Duten atxikimenduaren arabera, liburu ofizialekin agertzen denekin batera material osagarriak erabiltzen dituzte Euskal Herria ezagutarazteko».

Ikastetxeetan euskara eta euskal kultura bezalakoak ageri badira ere hezkuntza proiektuek maiz muga gehiegi dituztela dio: «Askotan kanpotik datozkigun legeek ez dute uzten hori guztia behar bezala gauzatzen». Zentzu horretan dio Eusko Jaurlaritzak ez duela curriculumala osatzeko bere esku dagoen guztia egiten. «Edozein kasutan helburua ez litzateke eskumena betetzea, baizik eta %100 gure curriculumala egin ahal izatea».